

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2753

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 10ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaarena, zeinaren bidez formulatzen baita Basauriko (Bizkaia) Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntualari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

AURREKARIAK

2024ko martxoaren 1ean, Basauriko Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan eskabide bat aurkeztu zuen, Ingurumenet sistemaren bidez, Basauriko (Bizkaia) Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura hasteko. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, zeinak Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukia baitzuen.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikulua aplikatuta, 2023ko azaroaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien ukitutako administrazio publikoei eta interresdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientearen bildu dira. Era berean, Basauriko Udalari jakinarazi zitzaion hasiera eman zitzaioela prozedurari.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren inguruan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Legezko erantzun-epea amaituta, eta espedientearen jasotako dokumentazio teknikoa aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, bat etorritik abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraikiz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta horien aldaketak eta berrikuspenak, ingurumena babesteko maila handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.2 artikuluan jasotako kasuen artean dago Basauriko (Bizkaia) Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntuala (aurrerantzean, Plana); izan ere, artikulua horretan ezartzen da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasatu behar diren plan eta programak, honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera, edo plan edo programen gaineko ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra, haiek ingurumenerako eragin nabarmenak ekar litzaketelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluan arautzen da, II.C eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Planaren dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena eta indarrean dagoen araudian ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau eman du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, beraubaita eskumen aduen organoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera. Txosten honetan, Planak ingurumenean ondorio adierazgarririk izan dezakeen ala ez aztertu da eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen edo, bete behar ez badu, Plana garatzeko zer baldintza ezarri behar diren ingurumena behar bezala babesteko.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ingurumen-txosten estrategikoa egitea, Basauriko (Bizkaia) Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntualari buruz. Hona txostenaren edukia:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Planak Basauriko hiri-lurzoru finkatugabea (0 bizitegi-eremu EI-01 eremu integratua) eremu eten bat antolatzen du, bi unitatek osatuta dagoena: lehenengoak, Kareaga Goikoa kalean, iparraldean Bilbo-Castejón trenbidearekin egiten du muga, mendebaldean espazio libreakin, hegoaldean Kareaga Goikoa kalearekin eta ekialdean kale horretako 9 zenbakiko eraikinarekin; bigarrenak iparraldean Kantabria kalearekin egiten du muga, hegoaldean Uribarri kalearekin, mendebaldean Bizkotxalde egoitzarekin eta ekialdean Uribarri BHLarekin. Indarrean dagoen HAPOn arabera, lehenengo unitateak 2.020,06 m²-ko azalera hartzen du, eta bigarrenak 6.234,41 m²-koa. Guztira, 8.254,47 m²-ko azalera etena osatzen du.

Planaren helburua da 01 Elaren parametro jakin batzuk aldatzea, Basauriko HAPOn behin betiko onartzeko erabakiaren aurka jarritako 283/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren harira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 2022ko irailaren 29ko 459/2022 epaia betetzera egokitzeko. Aldaketa egiteko beharra labor aipatzen da aipatutako epaiaren seigarren zuzenbideko oinarrian, 01. Ela osorik etxebizitza tasatura bideratzea ustez Zuzenbidearen arabera ez izateari buruzkoan.

Udal-plangintza aipatutako epaira egokitzeko, Planaren bidez, etxebizitza libreko erabilera sartzeko da, aurreikusitako etxebizitza tasatuaren erabilera osatzeko eta, horrela, jarduketaren balantze ekonomikoa hobetzeko, etxebizitza soziala sartzeko aukera emanez. Horrek esan nahi du HAPOn aurreikusitako egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua berriz diseinatu behar direla.

Indarrean dagoen HAPOk espazio libre etarako eta oinezkoentzako bide etarako erabiltzen du Kareaga Goikoa kaleko unitatea, eta antolamendutik kanpo uzten ditu lehendik dauden eraikinak (1, 3, 5 eta 7 zenbakiak). Bizkotxaldeko unitatea oinezkoentzako bide etara, ekipamenduetara, espazio libre etara eta bizitegira bideratzen da (80 etxebizitza tasatu), eta ez dago antolamenduz kanpoko eraikinik edo instalaziorik.

Planak hasierako aurreikuspena handitzen du; 80 etxebizitzatik 94 etxebizitzara (46 etxebizitza libre, 19 babes sozialeko etxebizitza eta 29 babes tasatuko etxebizitza), guztiak Bizkotxaldeko unitatean eraikitzeko, indarrean dagoen plangintzan aurreikusita zegoen bezala. Bizkotxalde ingurua berrantolatzea aurreikusten da, sestra azpiko azalera gehiago aprobetxatzeko. Jarduketaren muga ere egokitu da, bai trenbide-espazioaren mugakide den eremuan (Kareaga Goikoa), bai Bizkotxaldeko unitatearen ekialdeko ertzean, Uribarri BHIaren ondoan. Horrek jarduketaren azalera osoa murritzitu du, eta HAPOn aurreikusitako 8.254,47 m²-tik 6.050,70 m²-ra igaro da, Planaren arabera.

Planak honako hau proposatzen du:

– Sestra gaineko aprobetxamendua handitzea, 8.702,67 m²-tik 10.283,00 m²-ra pasatuz, eta sestra azpiko aprobetxamendua handitzea, 1.355,21 m²-tik 5.704,00 m²-ra pasatuz.

– Aprobetxamendu osoa handitzea: 10.057,88 m²-koa da indarrean dagoen HAPOn arabera, eta 15.987,00 m²-koa izango da, Planaren arabera.

– Sestra gaineko batez besteko eraikigarritasuna 1,05 m²/m² izatetik 1,7 m²/m² izatera igaroko da.

Aztertutako alternatibak kontuan hartuta, Planak Basauriko HAPOn indarrean dauden zehaztapenei eusteari dagokion «0» aukera edo esku ez hartzeko aukera jasotzen du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2022ko irailaren 29an emandako 459/2022 epaia betetzeko indarrean dagoen HAPOk parametro jakin batzuk aldatzeari dagokion 1. aukera ere. Epaileak aginduta, 1. aukera hautatu da.

Plana garatzeko, hirigintzako jarduketa-programa bat egingo da (HJP), eta, hala badagokio, xehetasunezko azterketa bat, bai eta urbanizatzeko eta birpartzelatzeko proiektuak ere.

B) Proposatutako Planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta bat etorritik abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.3 artikularekin, lege horren II.C eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira; hain zuzen ere, Plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri behar den ala ez zehazteko.

1.– Planaren ezaugarriak.

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Planak Basauriko HAPOk 01. Elaren zenbait parametro aldatzen ditu, HAPOn behin betiko onartzeko erabakiaren aurka jarritako 283/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren harira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 2022ko irailaren 29ko 459/2022 epaia betetzeko. Indarrean den plangintzaren arabera etxebizitza tasatuak soilik hartzera bideratuta zegoen 01. Elan etxebizitza libreko erabilera ahalbidetzen da eta aurreikusitako aprobetxamendua handitzen da. Kontuan hartuta kokapena, eragindako eremuaren ingurumen-ezaugarriak, proposatutako garapenaren garrantzia eta etorkizunean Planaren esparruan gauzatuko diren proiektuen izaera, ez dago zertan Plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri, berezitasunik ez duela uste da eta.

Indarrean dagoen plangintzari dagokionez, aldaketak ez du azpimarratzeko moduko desberdintasunik eragiten aurreikusitako ingurumen-efektuetan, ezta hierarkian gorago dauden beste plan edo programa batzuetan ere.

Plana garapen jasagarria sustatzen duten ingurumen-kontsiderazioak integratzeko egokia dela ondorioztatu da, eta aukera ematen duela energia-aurrezpena eta -efizientzia sustatzeko neurriak txertatzeko.

Ez da hauteman Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarririk, betiere, besteak beste, ondareari, hondakin eta isurpenei, zaratari, segurtasunari, osasunari eta ingurumenari buruz indarrean dagoen araudia betez gauzatzen badira ukitutako eremuarekin lotutako jarduketak eta jarduerak.

Azkenik, Plana egokitzen jo da Europar Batasuneko eta Espainiako ingurumen-arloko legeak ezartzeko.

2.– Ondorioen eta eragina jasan dezakeen eremuaren ezaugarriak:

Planak eremuaren bat antolatzen du, bi unitatez osatua. Unitate horiek, guztira, 8.254,47 m²-ko azalera hartzen dute. Bi unitateek, neurri handi batean, luraren ezaugarri naturalei eusten diete, nahiz eta Basauriko hiri-egituraren egon. Kareaga Goikoa kalean dagoen unitateak 2.020,06 m²-ko azalera du, eta iparralderantzko malda du, trenbidearen trazaturantz, hain zuzen. Unitate horren hegoaldeko muga artifizializatuta dago, eta egoera txarrean (baita aurri-egoeran ere) dagoen etxebizitza kolektiboaren ilara bat hartzen du; guztira 39 etxebizitza daude, eta Planak antolamendutik kanpo uzten ditu. Bizkotxaldeko unitateak eraikuntzarik gabeko lursaila hartzen du, eta hiri-espazio libre bat eratzen du, iparralderantzko maldan hori ere.

Ez da ingurumen-balio nabarmenik hauteman eremuan. Ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ezta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-interesekorik ere. Halaber, ez dauka inbentario edo katalogoren batean jasotako paisaia-baliorik, eta ez du ukitzen EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan jasotako interes geologikoko lekurik, ez eta EAEko korridore ekologikorik ere. Eremuan ez da hauteman espezie mehatxaturik, ezta Batasunaren intereseko habitatik ere.

Litologikoki, pitzaduragatik iragazkortasun txikia duten tuparriak eta tuparri-kareharriak daude Bizkotxaldeko unitatean; Kareaga Goikoa kalean dagoen unitatean, berriz, iparraldean, pitzaduragatik iragazkortasun ertaina duten kareharriak, eta, hegoaldean, porositateagatik iragazkortasun txikia duten hareharriak. Oro har, 01. Elan akuiferoaren kutsadurarekiko kalteberatasuna txikia da, eta ez du interes hidrogeologikoko gunerik ukitzen.

Eremua Ibaizabalen unitate hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan (ES017). Zehazki, Ibaizabal IV (ES068MAR002850) lurrazaleko ur-masaren isuri-arroan dago. Eremuan ez da ur-ibilgu iraunkorrik identifikatu. Hurbilen dagoen ibai-ibilgua Ibaizabal ibaia da, Kareaga Goikoako unitatetik 90 metro iparraldera, eta Bilbo-Castejon trenbidea dago (ADIF) unitatearen eta ibaiaren artean. Eremuak ez du barne hartzen Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.

Eusko Jaurlaritzaren 2007ko landarediaren kartografiaren arabera (geoEuskadi), eremua landaredi erruderal-nitrofiloa duten hiriguneek eta lugorriek osatzen dute, eta harizti azidofiloz eta harizti/baso misto atlantikoaren osatutako eremu bat dago, Kareaga Goikoan kokatutako unitatearen iparraldeko zerrendan. Ingurumen-dokumentu estrategikoaren arabera, aipatutako hariztia espezie autoktonoetako zuhaitz eta zuhaixka gazteen orban misto bat da, espezie erruderalak eta kanabera arrunta ere badaudena. Kanabera arrunta landaredi inbaditzailea da. Bestalde, Bizkotxaldeko unitatean parke-gune bat dago (txakur-parkea), zuhaitz eta zuhaixka sakabana-tuak dituen (haritz gazteak, platanoak, tamaina handiko eukaliptoak eta beste espezie apaingarri batzuk), baita landaredi inbaditzailea ere (*Cortaderia selloana*).

Ez Planaren eremuan, ez haren ingurune hurbilean, ez da identifikatu mehatxatutako fauna kudeatzeko planen xede den eremurik, ez eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak edo Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera

(2016-05-23ko EHAA, 96. zk.) abifauna babesteko ezarritako eremurik ere. Ustez, eremuan dagoen fauna hiri-inguruneetara egokitutako espezie arruntak dira.

Eremua Basauriko ikuspen-arroari dagokio, eta eremu antropogenikoan dagoen hiri-paisaia da. Eremua ez dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta (Eusko Jaurlaritzak, 2005).

Planaren eremuan ez dago kultura-ondasun deklaraturiko kultura-ondareko elementurik, baina Kareaga Goikoa Etxea 1 eraikina dago (47. fitxa-zenbakia), tokiko intereseko elementua dena.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, Kareaga Goikoan kokaturiko unitatearen iparraldeko zerrendan muturreko higadura-prozesuak daude, eta, Eusko Jaurlaritzaren kartografiaren arabera, eremu horietan higadura dago, eta begien bistakoa da. Gainera, zerrenda horrek baso-sute handia izateko arriskua du, eta Bilbo-Castejon (ADIF) trenbidearen trazaduraren 100 metroko eragin-zerrendan dago, salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handiarekin lotuta.

Beste arrisku batzuei dagokienez, Planaren eremuan ez dago lhobeko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoru inbentarioko kokalekurik, eta ez da hauteman uholde-arriskugarritasunari lotutako arriskurik (eremuan ez dago EAEko uholde-arriskuari buruzko mapetan aintzat hartutako 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdegunerik). Gainera, eremuak akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun txikia du, eta ez da sismikotasunetik eratorritako arriskurik identifikatu.

Eremuaren egoera akustikoari dagokionez, eta aurkeztutako inpaktu akustikoari buruzko azterlanaren arabera, bi unitateetan gaintzen dira kalitate akustikoaren helburuak kanpoaldean, 2 metroko altueran, egungo egoeran; etorkizuneko egoeran, kalitate akustikoaren helburuak gaintuko dira kanpoaldean, bai 2 metroko altueran, bai Bizkotxaldeko unitatean proposaturiko bizitegi-eraikinaren ipar-ekialdeko fatxadan. Bibrazio-mailei dagokienez, trenbideko zirkulazioa ez da baldintzatzailea Bizkotxaldeko unitatean; Kareaga Goikoako unitateari dagokionez, berriz, ez da aplikatu behar mugarik, ez baita aurreikusten etorkizuneko garapenik. Bizkotxaldeko unitatean proposaturiko eraikinari dagokionez, etorkizuneko eraikinaren kokapen-aukera desberdinak aztertu ondoren, aurkeztutako azterlanaren arabera, ez dago eraikinaren egoera akustikoa hobetuko duen antolamendu-alternatibarik. Planean proposaturikoaren alderatuta, nahiz eta kalitate akustikoaren helburuak gaintuko diren kanpoaldean, zonako planean aurreikusitako neurriak aplikatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 43. artikuluan aurreikusitako salbuespentzat jo baitaiteke.

Deskribaturikoa aintzat hartuta, Kareaga Goikoa kaleko 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako eraikina eraistarekin eta Bizkotxalde unitatean eraikin berria eraikitzeako obrak egikaritzearekin lotuta daude Plana garatzearen ondoriozko eragin nagusiak. Obra horiek honako ondorio hauek izango dituzte: lurzorua okupatzea, hondakinak sortzea, lurrak mugitzea eta soberakinak sortzea, makinak joan-etorrian ibiltzea, jariatze-urei eta lurzoruei eragitea istripuzko isurketengatik, herritarrei enbarazu egitea emisio atmosferikoengatik eta zarategatik eta abar. Hori guztia, eremu nagusiki hiritar batean.

Ustiapen fasean, afekzio nagusiak aurreikusitako bizitegi-erabilerarako Bizkotxaldeko unitatearen kalitate akustikoarekin lotutakoak izango dira. EI-01 eremu integratua Babes Akustiko Berezikoko Eremuan dago, eta zonako plan bat dago BABE izendatuarekin lotuta. Zonako planean aurreikusitako neurriak gorabehera, aurkeztutako inpaktu akustikoari buruzko azterlanaren arabera, Bizkotxaldeko unitatean egingo den eraikinaren ipar-ekialdeko fatxadan gauez KAHak gaintitzea aurreikusten da; aldi horretan, lortutako baliorik handiena 53 dB(A) da beheko solairuan.

Etorkizuneko bizitegi-eraikinari aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak ez betezeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, etorkizunean ezingo dira egikaritu garapen urbanistikoak honako eremu hauetan: kanpoaldean kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez direnetan, hargatik eragotzi gabe 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa. Barnean, kalitate akustikoko helburuak beteko dira emisio-fokuetara orientatutako fatxadetan, fatxadako isolamenduaren bidez.

Proposatzen diren jarduketak eta haien ondorioak aztertu ondoren, uste da inpaktu horiek txikiak izango direla, eta, oro har, aldi baterakoak eta itzulgarriak izango direla, betiere indarrean dagoen legeria betetzen bada, batez ere zaratari, ondareari, hondakinei eta isurketei buruzkoa, eta obrak horrelako jardueretarako jardunbide egokiak betez egiten badira.

Planak indarrean dagoen plangintzarekiko proposatutako aldaketen ondoriozko eragin posibleak soilik aintzat hartuta, ez da aurreikusten inongo ingurumen-eragin nabarmenik.

Kontuan harturik aurreko guztia, eremuaren gaur egungo egoera eta Planetik eratortzen diren jarduketak, eta txosten honetan ezartzen diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak betetzen badira, ez da espero jarduketek eragin nabarmenik izatea ingurumenean.

Hori dela eta, ingurumen-dokumentu estrategikoak planteatzen dituen zuzenketa-neurriak eta jasangarritasunaren aldekoak aplikatuta, eta aurrerago zehazten diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak ere aplikatuta, ez da espero jarduketek ingurumenean eragin nabarmenik izango dutenik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoari jarraikiz, baldin eta eragin-eremuan egiten diren esku-hartzeak eta jarduketak, besteak beste, segurtasunari eta osasunari, ingurumenari, hondakinei, isurketei, kutsadura akustikoari eta ondareari dagokienez indarrean dagoen araudia betez egiten badira.

3.– Ebazpen honetan, honako babes- eta zuzenketa-neurri hauek ezartzen dira, Planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntualari ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar ez izateko, betiere ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak txertatzen badira.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dauden arauen arabera gauzatuko dira, baita ebazpen honetan zehaztutakoaren arabera ere, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den guztian, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta Planean bertan adierazitakoaren arabera.

Aplikatzeko neurrien artean, plana garatzeko proiektu eta jarduketan ondoriozkoak nabarmendu behar dira, hala obra faseari nola jardueraren funtzionamendu faseari lotutakoak.

– Kalitate akustikoa babesteko neurriak.

Aurreikusitako erabileretarako, eremuaren kalitate akustikoari dagokionez, kontuan hartuko da, bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikuluekin, etorkizunean ezingo dela hirigintza-garapenik gauzatu kanpoaldean kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez diren guneeetan, hargatik eragotzi gabe dekretu horren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Nolanahi ere, eraikinaren barnealdean kalitate akustikoaren helburuak betetzera bideratutako neurriak hartu beharko dira, eraikinaren erabileren eta motaren arabera. Alde horretatik, eta aurkeztutako inpaktu akustikoari buruzko azterlanaren arabera, Bizkotxaldeko unitatean egingo den bizitegi-eraikinaren barrualdean KAHak betetzeko, eraikinaren iparraldeko fatxadak isolamendu akustiko hau izan beharko du: $D_{2m,nT,Atr}$ gutxienez 32 dB(A)-koa logeletan eta 30 dB(A)-koa egongeletan. Gainerako fatxadetarako, kalitate akustikoaren helburuak lortzea ahalbidetuko duen $D_{2m,nT,Atr}$

isolamendua gutxienez 30 dB(A)-koa izan beharko da, eta EKTko DB-HRren eskakizunak bete beharko dira, hots, zonako planak ezartzen duena. Hala ere, logela guztiek izan beharreko $D_{2m,nT,Atr}$ isolamendu akustikoa gutxienez 32 dB(A)-koa izatea gomendatzen da. Era berean, zonako planak adierazten duen bezala, ahal den neurrian, logelak etorkizuneko bizitegi-eraikuntzaren ipar-ekialdeko fatxadan kokatzea saihestuko da.

Eraikina erabilgarri jarri aurretik, zarata-neurketak egingo dira eraikinaren barnean, barnealdeko kalitate akustikoko helburuak betetzen diren egiaztatzeko.

– Kultura-ondareari dagozkion neurriak.

Kareaga Goikoa Etxea 1 (47) eraikinari dagokionez –Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak toki-babeserako proposatu du–, Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoa beteko da.

– Beste prebentzio- eta zuzenketa-neurri batzuk:

Hargatik aurreko neurriak eragotzi gabe, garapen-proiektuak gauzatzean aplikatu beharreko neurriak lotuta egongo dira obrak egiteari, lurrak eta soberakinak kudeatzeari, hondakinak sortu eta kudeatzeari, hondeatutako lurzoruak kontrolatzeari, eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babesteari buruzko jardunbide egokien eskuliburuarekin. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira, eta Planak azkenik ezartzen dituen zehaztapenetan txertatu:

- Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua. Gai hauei lotutako alderdiak izango ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, uretarako isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa duten jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

- Obrak, bai eta lurzoruak erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxienezko eremuan gauzatuko dira. Kontratistaren instalazio-eremuak, barnean hartuta makinak gordetzeko guneak, obra-txabolak, landare-lurra eta obrako materialak eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak, ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideei jarraikiz proiektatuko dira.

- Hondakinak sortu eta kudeatzea: Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak araututakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barnean direla.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu beharko da edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu beharko dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barnean dela.

Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da aldeztu aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

Olio erabiliak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatu beharko dira.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, baldin eta hondakinen tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egon beharko dira kudeatzaileari eman arte,

isurita edo lurrunduta gal ez daitezen. Aipatutako ontziek era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da behin-behinean hondakin arriskutsuak pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, lanek irauten duten bitartean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu estankoak jarriko dira lanak egiteko eremu osoan (bidoiak, etab.). Motaren arabera bereiziko dira hondakinak, eta, ondoren, aldi baterako biltegitratuko dira aipatutako garbigunean.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia bakoitzeko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean biltegitratuko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihes eta isuri posibleei eusteko sistemen barruan.

Araudia betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereiziki, inolaz ere ez da efluente kontrolgaberik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

- Obretan sortutako hondeaketa-soberakinak soberakinen biltegi baimendura eramango dira, eta haien kudeaketa hauen arabera egingo da: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzeko arautzen duena.

- Dauden eraikinak eraistean (Kareaga Goikoa kaleko 1, 3, 5 eta 7 zenbakiak), arreta handiz jokatu beharko da, eta amiantoaren duen hondakinik antzematen bada, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak, amiantoak ingurumena ez kutsatzeko eta amiantoaren ondoriozko kutsadura txikitzeak, ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dira. Era berean, amiantoaren duen hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira.

- Obrak egin bitartean, lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela adierazten duten zantzu sendoak agertuz gero, horren berri eman beharko zaie, berehala, Basauriko Udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek zehatz dezan zer neurri hartu behar diren eta zein pertsona fisikok edo juridikok gauzatu behar dituen neurri horiek, Lurzorua kutsatzea saihesteko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikuluekin bat.

- Lurzorua eta lurpeko urak babestea: prebentzio- eta zuzenketa neurriak ezarriko dira dagoen obra faserako, istripuzko isuriaren eragina saihesteko, bereiziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriei kutsatutako lurzorua kendu eta kudeatzea, etab.).

Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak edo makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira. Makinen mantentze-lanek ez da egingo iragazgaitz gabeko eremuetan, eta, nolatan ere, hondakinak (bereiziki, olio erabiliak) biltzeko sistema bat izango duen plataforma iragazgaitz

baten gainean egingo dira obran erabiltzen den makineriari erregaia jartzeko, lubrifikatzaileak aldatzeko eta bestelako lanak, urak kutsatu ez daitezen.

- Obretako zarata: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokionez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrek iraun bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketetan, eraispenetan, zamalanetan eta garraio-lanetan, bai eta erabiltako makinaren mantentze-lan orokorretan eta zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira lanak.

Sei hilabeterako baino gehiagorako lanak badira, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikulua arabera, inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat egin beharko da, behar diren zuzenketa-neurriak zehazteko. Inpaktu akustikoari buruzko azterlan horretan aztertu beharko da zer onura akustiko lortu nahi den zuzenketa-neurri horien bitartez, eremu akustiko eta eraikin zaurgarrietan zarata-maila murrizteari dagokionez, eta ukitutako udalerriari jakinarazi beharko zaio haren edukia.

- Hargatik eragotzi gabe Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa: obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala emango zaio horren berri Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

- Garbi mantendu beharko dira kamioiek obrara sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak; horretarako, presioko ura edo erratz-makinak erabiliko dira.

- Espezie inbaditzaileen kontrola: identifikatutako flora aloktono inbaditzaileko aleak kenduko dira, eta eremuan eta inguruan ez hedatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Inola ere ez dira erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, eta bermatu egingo da leheneratze-lanetan erabilitako landare-lurrak flora inbaditzailearen propagulurik ez duela.

- Obrek kaltetutako eremuak leheneratzea: proiektua gauzatzearen ondorioz kaltetutako eremu guztiak leheneratuko dira. Hala badagokio, espazio libreetako landareztatze-lanak ahalik eta lasterren egingo dira, higadura-prozesurik ez gertatzeko, solidoak drainatze-sarera ez arrastatzeko, eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizaziorik ez gertatzeko.

- Gune libreen tratamendua: gune libreak landareztatze, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatze eskuliburua» argitalpenean jasotakoari jarraituko zaio. Espezie autoktonoak erabiliko dira eta jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, espezie inbaditzaileak agertzeko arriskua txikiagoa izan dadin. Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Leheneratze-lanetan erabiliko den landare-lurrak flora inbaditzailearen propagulurik ez duela bermatuko da.

• Eraikuntzaren jasangarritasuna: eraikuntza eta eraikingintza jasangarriagoak egiteko behar diren ezaugarriak dagokienez, eraikuntza jasangarriko gidetan jasotako ingurumen-neurri eta -jardunbide egokiak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek alderdi hauetan eragin beharko dute, gutxienez:

- * Materialak. Lehengai berriztaezin gutxiago kontsumitzea.
- * Energia. Energia-kontsumoa murriztea edota energia gutxiago sortzea iturri berriztaezinen bidez.
- * Edateko ura. Edateko ur gutxiago kontsumitzea.
- * Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- * Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak gutxitzea.
- * Barne-kalitatea. Barneko airearen kalitatea, konforta eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.— Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntualak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.— Ebazpen honen edukia jakinaraztea Basauriko Udalarari.

Laugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.— Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezkoak dituen efektuak izateari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta, ez bada Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 01. Elaren 1. aldaketa puntuala onartzen lau urteko epean. Hala gertatuz gero, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazioaren prozedura, ingurumen-organoari indarraldia luzatzeko eskatzen zaionean salbu. Hala gertatuz gero, ingurumen-organoak, hala badagokio, ingurumen-txosten estrategikoaren beste indarraldi bat xedatuko du, erregelamenduz ezarritako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 10a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.